

## UDALAREN OSOKO BILKURA

### Saioaren akta

Ohiko bilkura

**Data: 2019ko abenduaren 11, asteazkena.**

**Ordua: 20:00.**

2020ko urtarrilaren 15eko onarpen-saioko aktan dauden iruzkinak jasotzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Bilkura osatu denean bertaratuta ez zeuden zinegotziak: Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) eta Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP), azken hori lan-arrazoiengatik ezin da etorri.

#### Gai-zerrenda

1. 2019ko azaroaren 13ko ohiko bilkuraren akta onartzea.
2. Alkatearen dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Jai, Obra eta Zerbitzu Batzordea.**
  - 3.1. Tabernetako ordutegi orokorraren gehikuntza metagarriaren 2020. urterako daten egutegia.
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea eta Euskara Batzordea.**
  - 5.1. 2018ko euskararen nazioarteko eguneko erakunde-adierazpena.
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
  - 6.1. Kreditu-kontuaren banku-kontratua, 2020ko abenduaren 31n iraungitzen dena.
  - 6.2. HAPOnen 10. aldaketa zehatza, edateko ur-biltegiaren eremuari dagokion lursailen kalifikazioari buruzkoa.  
Azken puntua) Galderak eta eskeak.

Saioaren izaera eta gai-zerrenda kontuan hartuta, jarraian adierazten dira hartutako erabakien deliberazioa eta bozketa.

#### 1. 2019ko azaroaren 13ko ohiko bilkuraren akta onartzea.

Alkate jaunak aktaren zirriborroari oharrak egiteko eskatu die zinegotziei. Ez da oharririk egin.

Erabaki da:

- 1) Onartzea 2019ko azaroaren 13ko ohiko saioaren akta, aurkeztutako zirriborroaren arabera.

Aldeko botoak 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

#### Alkatetza dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuak adierazita, aurreko ohiko saioan emandako alkate-dekretuen eta -ebazpenen berri eman du; 2019ko 261/19 eta 281/19 bitartekoak dira.

Bertaratutakoak jakinaren gainean geratu dira.

Alkate-dekretuak eta -ebazpenak irakurri bitartean, Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) zinegotzia bilerara batu da.

### **3.1 Tabernetako ordutegi orokorraren gehikuntza metagarriaren 2020. urterako daten egutegia.**

Aurrekariak:

1. Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuak (Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena) arautzen ditu tabernen jardueraren ordutegia eta gainerako baldintzak. Legea 2019ko otsailaren 21eko EHAAn argitaratu zen (37. zk.).
2. 17/2019 Dekretuak udal-agintariei aitortzen die ordutegiak gehienez bi orduz luzatzeko eskumena.
3. Oyón-Oiongo Udalak 2020. urterako lokalen ordutegi orokorra luzatzeko proposamen bat egin du eta tabernei bidali die. Jendaurrean jartzeko epean, interesdunek emandako egutegian agertzen diren datak ez diren beste batzuk proposa ditzakete. Ez balitz ezer aurkeztuko, proposatutako egutegia onartu dela ulertuko da. Erreklamazioak eta iradokizunak egiteko epea abenduaren 3an, asteartean, 13: 00etan amaitu zen. Epea igaro ondoren, proposamen bat egin zen.

Erabaki da:

- 1) Onartzea lokaletako ordutegi orokorraren gehikuntza metagarria duen daten egutegia. Honako hauek dira datak:  
Urtarrilak 21 (asteartea), San Vicente jaiak.  
Otsailak 22 (larunbata), Inauteriak.  
Apirilak 25, 26 eta 27 (larunbata, igandea eta astelehena), San Prudentzio jaiak.  
Uztailak 11 (larunbata), Eivissar Jaia.  
Abuztuak 1 (larunbata), Blusaren eguna.  
Abuztuaren 26tik abuztuaren 31ra (asteazkenetik astelehenera), Esker onezko jaiak.  
Abenduak 24 (osteguna), Gabon-gaua.  
Abenduak 31 (osteguna), Urtezahar-gaua.
- 2) Establezimenduetako ordutegi orokorraren gehikuntza metagarria jarraian aipatutako jardun-murrizketetara egokituko da:
  - I. Aisialdiko jarduerak ezingo dira 06:00ak baino lehen hasi.
  - II. Ezarritako itxiera- edo amaiera-ordutegiaren (benetan ixten den edo ez kontuan hartu gabe) eta irekiera- edo hasiera-ordutegiaren artean, gutxienez, hiru orduko tartea egon behar du. Lokalaren jabeak Udalarari formalki jakinarazten badiu uko egiten diola azken horrek baimendutako ordutegi orokorraren luzapena aplikatzeari, derrigorrezko itxiera-ordutegia aurreikusitako itxiera-ordutegi orokorrarena izango da.
  - III. Nolanahi ere, debekatuta dago musika edo ikus-entzunezko ekipamenduak martxan jartzea, baita emanaldiak, dantzalekuak edo antzekoak eta, oro har, zaratak gogaikarriak sor ditzakeen edozein jarduera ere, 11:00ak baino lehen.
  - IV. Luzapenak ez du terrazaren funtzionamendu-ordutegia luzatzea eragiten. Ordutegiaren amaieran eta gehienez 30 minutuko epean, altzariak bide publikotik kendu edo bildu beharko dira (kentzeko ordutik aurrera inork berriz jarri ezin izateko moduan).
  - V. Luzapena orokorra da lokal guztietarako eta ezingo da luzapen partikularrik eman.
  - VI. Ordutegien luzapena Eusko Jaurlaritzari, Segurtasun Sailari, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari eta Ertzaintzaren Laguardiako polizia-etxeari jakinaraziko zaie.

Aldeko botoak 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE) eta Eduardo Inclán Gil (PP).  
Abstentzioak: 1 (bat); Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

#### **4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**

#### **5. Gizarte Ongizatea eta Euskara Batzordea.**

##### **5.1. 2019ko euskararen nazioarteko eguneko erakunde-adierazpena.**

Eslava Guillerna andreak irakurri du 2019ko euskararen nazioarteko eguneko erakunde-adierazpena. Jarraian transkribatu da gaztelaniaz zein euskaraz.

"¡Bienvenidas, bienvenidos al futuro!

El euskera viene saltando de siglo en siglo. De día en día. De corazón en corazón. Y, sobre todo, de boca en boca.

El euskera celebra hoy su día, más concretamente su Día Internacional. Pero sabemos muy bien que lo que hoy celebramos los y las vascohablantes y la ciudadanía vasca en general no se circunscribe a los límites de un solo día. El euskera salta también esos límites. Salta por encima de todas las fronteras, pleno de vitalidad en nuestros labios, siempre bienvenido en nuestros oídos. Nuestro euskera, apto para todo, ese euskera que a todas y todos nos pertenece.

¿Qué otra cosa podríamos celebrar hoy?

El euskera ha recorrido un largo camino, y, con él, la comunidad de vascohablantes y euskaltzales, en un esfuerzo sostenido para ganar el futuro. La sociedad vasca ha recorrido un largo camino para llevar al euskera, con toda dignidad, a todos los ámbitos y lugares. Y mucho es lo logrado. La propia acción nos ha enseñado, nos enseña a diario, hasta qué punto es imprescindible actualizar los procedimientos, renovarlos, vigorizarlos a base de imaginación. Y todo el conjunto de quienes nos implicamos en las labores propias de la euskalgintza estamos dejando muy patente nuestra disposición y entusiasmo a la hora de interiorizar y poner en práctica esa enseñanza.

Acordamos las acciones. Aproximamos los diagnósticos. Tejemos iniciativas compartidas. Evaluamos juntos el trabajo realizado. Perfeccionaremos codo con codo todo cuanto sea susceptible de mejora.

Y la sociedad ha respondido con fuerza, haciendo suyas las nuevas estrategias y formas orientadas a aumentar el uso del euskera de manera nítida y sostenida.

Tenemos, por tanto, qué celebrar también en este Día Internacional del Euskera.

El exitoso ejercicio social que el año pasado se llevó a cabo activó de forma nunca vista hasta entonces a las y los vascohablantes, sea cual fuere el grado en que lo son. Activó igualmente, y desde una nueva perspectiva, a los poderes públicos y a las más diversas organizaciones sociales. Y activó, sobre todo, una actitud proclive y dispuesta a la renovación de estrategias y discursos.

La actitud favorable al euskera dio, así, pasos hacia un compromiso eficaz y práctico.

Vislumbramos ya, en un horizonte cercano, la prolongación de aquella iniciativa. Reactivaremos el Euskaraldia, nuevamente en una atmósfera de acuerdo y colaboración, y el Día Internacional del euskera del año próximo ocupará, cómo no, su lugar específico en el contexto de ese formidable ejercicio social.

No se limita a eso, sin embargo, el esfuerzo por aumentar el uso del euskera. De ninguna manera podría limitarse a eso. Es preciso trabajar en todos los ámbitos, a fin de que ese uso crezca con vigor.

Son muchos los ámbitos que exigen una labor específica, y entre todos ellos, uno se sitúa en el núcleo del devenir de la sociedad: la esfera de la economía, el trabajo y el consumo, motor principal de la vida social y ciudadana.

A nadie se le escapa la relevancia de la aportación recíproca entre el ámbito socioeconómico y el euskera. Porque somos muy conscientes de la inviabilidad de una normalización lingüística que no arraigue profundamente en el mundo del trabajo, la economía y el consumo.

Los principales agentes que operan en ese ámbito están dando pasos ciertamente sólidos. Y destaca entre ellos, sin duda alguna, la inserción del uso del euskera entre los elementos consustanciales a la más diversas organizaciones.

Nuevos caminos, nuevas formas, también en el ámbito socioeconómico.

Nuevas estrategias, por tanto. Nuevos compromisos. Nuevas maneras de responder al compromiso. Nuevas prácticas.

En definitiva, es una actitud, además de favorable al euskera, transformadora lo que nuestra sociedad está sustanciando por medio de la activación del conjunto de vascohablantes y euskaltzales.

En ello radica el futuro del euskera.

Un futuro que viene de la mano de nuevas vías y prácticas.

¡Bienvenidas, bienvenidos al futuro!

¡Bide berriak, modu berriak, Ongi etorri etorkizunera!

Jauzika dator euskara. Jauzika mendez mende. Jauzika egunez egun. Bihotzetik bihotzera jauzika. Eta, batez ere, ezpainez ezpain jauzika.

Bere eguna du gaur euskarak, Nazioarteko Eguna hain zuzen ere. Baina ongi asko dakigu euskal herritarrok eta euskal hiztunok gaur ospatzen duguna ez dela egunaren mugetara errenditzen. Jauzi egiten du euskarak egunaren mugez gaindi ere. Jauzi egiten du euskarak muga guztiez gaindi, gure ahoan bizi-bizi, gure belarrietan zernahitarako prest beti. Noranahiko euskara gurea, denona.

Zer genuke, bestela, gaur ospatzeko?

Bide luzea egina du euskarak, eta harekin batera euskal hiztunok eta euskaltzaleok, etorkizuna irabazteko etengabeko ahaleginean. Bide luzea du egina euskal gizarteak euskara plaza guztietara duintasun osoz eramateko. Eta asko lortu da. Jardunak berak erakutsi digu, erakusten digu egunero, ezinbestekoa dela bide horiek, gauzak egiteko moduak, etengabe eguneratzea, eraberritzea, irudimenez biziagotzea. Eta argi erakusten ari gara euskalgintzan ari garen guztiok prest gaudela, eta gogotsu, irakaspenean barneratzeko eta praktikan mamitzeko.

Jarduerak adostu ditugu. Diagnostikoak hurbildu ditugu. Ekimenak josi ditugu elkarrekin. Elkarrekin ebaluatu dugu egindakoa. Elkarrekin hobetuko dugu hobetu beharrekoa.

Eta gizarteak erantzun sendoa eman du, onetsiz euskararen erabilera era iraunkor eta argian handiagotzeko estrategia eta molde berriak.

Badugu, bai, zer ospaturik aurtengo Euskararen Nazioarteko Egun honetan ere.

Ezagutzen ez genuen modu batean aktibatu zituen iazko gizarte-ariketa arrakastatsuak euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz besteak. Aktibatu zituen, baita ere, herri aginteak eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Eta, batez ere, estrategiak eta diskurtsoak eraberritzeko joera eta prestasuna aktibatu zituen.

Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktikoa bihurtzeko bidean jarri zen.

Badator, hurbileko ostertzean, ekimen haren jarraipena. Euskaraldia berraktibatuko dugu, berriz ere denon arteko adostasun eta lankidetzan, eta hurrengo urteko Euskararen Nazioarteko Egunak izango du, ezinbestez, toki propioa ariketa sozial erraldoi horren ingurumarian.

Ez da, baina, horretara mugatzen euskararen erabilera areagotzeko eginahala. Ezin inola ere horretara mugatu. Alorrez alor landu beharra dago erabileraren landarea, sendo haz dadin.

Ugari dira berariazko lanketa eskatzen duten alorrak, eta horien guztien artean bada bat gizarte-bizitzaren gune-gunean dagoena: ekonomia, lana eta kontsumoa biltzen dituen arloa, hain zuzen ere, gizartearen eta herritarron bizitzaren motore nagusia baita.

Arlo sozioekonomikoak eta euskararen erabilerak elkarri egin behar dioten ekarriaren garrantzia ez da gutariko inorentzat ezezaguna. Bai baitakigu ez dela hizkuntza normalkuntzarik lanaren, ekonomiaren eta kontsumoaren munduan erro sakonik ez duenik.

Sendoak dira, alor horretan ere, eragile nagusiak egiten ari diren urratsak. Eta horietan lehena, zalantzarik gabe, euskararen erabilera askotariko erakundeen izaeraren ezaugarrien artean txertatzea dago.

Bide berriak, modu berriak, arlo sozioekonomikoan ere.

Estrategia berriak, beraz. Konpromiso berriak. Konpromisoari erantzuteko molde berriak. Praktika berriak.

Azken batean, aldeketasun eraldatzailea da gure gizartea, euskal hiztunok eta euskaltzaleok aktibatuz, bideratzen ari dena.

Bertan du euskarak etorkizuna.

Bide eta praktika berrietatik datorren etorkizuna. Ongi etorri etorkizunera!"

Adierazpena irakurri bitartean, Fernández Ruiz jauna atera da eta berriro sartu da irakurketa amaitu aurretik.

Villanueva Gutierrez jauna (EH Bildu Oion): Adierazpena ondo dago. Zergatik ez dugu Oionen euskararen eguna sustatzen gure kaleetan euskara entzuteko? Duela bi legealdi Alderdi Popularrak euskararen mahai bat bultzatu zuen eta gauza askotan aurrera egin zen, bi hizkuntzatan dokumentuak egin ziren... Gustatuko litzaidake urrats bat aurrera ematea. Proposamen hau erronka bat da. Zergatik ez? Nik EH Bildu Oionen laguntza eskaintzen dut.

Alkate jauna: Proposamen interesgarria dela uste dut. Ekimen honek, beste eragile batzuen artean, hezkuntza-zentroak kontuan hartu behar ditu.

Alkate jaunak galdetu du ea atxikitze borondaterik dagoen. Taldeak adierazpenera atxikitzearen alde daude.

2019ko euskararen nazioarteko eguneko adierazpena bozkatu da:

Aldeko botoak 9 (bederatzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onartutako Toki-erakundearen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren Erregelamenduaren 98.3 artikuluko 2. paragrafoan eta 100.1 artikuluko 2. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, gaiaren deliberazioa hastean eta bozkatzerako orduan, bertaratutako zinegotziak 9 (bederatzi) ziren.

Oyón-Oiongo Udaleko Udalbatzak 2019ko euskararen nazioarteko eguneko adierazpenarekin bat egin du.

## **6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**

### **6.1. Kreditu-kontuaren banku-kontratua, 2020ko abenduaren 31n iraugitzen dena.**

Aurrekariak:

1. Urteko kreditu-kontuen kontratua sinatzeko espedientea abiaraztea finantza-erakunde batekin, diruzaintzako itunpeko eragiketa kobrantzen eta ordainketen arteko desfase

*Udalaren osoko bilkura; 2019- XII - 11ko bilkura;*

- iragankorrei aurre egiteko. Gehienezko zenbatekoa: 500.000 (bostehun mila) euro. Espedientea abiarazteak berarekin dakar gonbidapena egitea Oyón-Oionen bulego bat irekita duten banku-entitateei. Eskaintzak kapitalaren gaineko interes-tasa eta banku-komisioak adieraziko ditu, hala badagokio. Eragiketa 2020ko abenduaren 31n utzi beharko da bertan behera.
2. Aplikatzekoa da otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa. Horrek adierazten du toki-entitateek zehaztu ahal izango dutela, nahi duten finantza-entitatearekin, diruzaintza-eragiketak urtebete baino gutxiagoko epean, beren ordainketen eta diru-sarreraren epemugan ezberdintasunetik eratorritako likideziaren aldi baterako defizitak estaltzeko, ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauaren (Toki Ogasunei buruzkoa) 51. artikuluan ezarritakoaren arabera.
  3. Aplikatzekoa da uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren (Tokiko Ogasunak arautzen dituen) 51. artikulua. Arau horrek ezartzen du arauan ezarritako baldintzetan eta erakunde eskudunek, Arabako Lurralde Historikoko herriek eta horien erakunde autonomoek ezarritako xedapenen esparruan, aurretiaz Udaltzatzarekin adostuta, honako hau itundu ahal izango dutela: "b) Toki erakundeek kreditu eragiketak egin ahal izango dituzte epe laburrera, hau da, urtebetetik beherako epera, diruzaintzaren beharrian iragankorrei aurre egiteko".
  4. Emandako epean, honako eskaintza hauek egin dira:
    - a. Laboral Kutxa, irekiera-komisioa: % 0, interes-tasa: 0,48 diferentziala + hiruhilekoko Euriborra (urteko interes-tasa aldakorra), erabili ez den saldo-komisioa: % 0,08 urteko (zergaren sortzapenaren hiruhilekoko interesak).
    - b. Kutxabank, irekiera-komisioa: % 0, interes-tasa: % 0,19, 2020ko abenduaren 11ko urteko saioan (finkoa), erabili ez den saldo-komisioa: % 0,10 urteko, zergaren sortzapenaren hiruhilekoko interesak.
  5. Kontratazio-mahaiak honako proposamen hau egin zuen 2020ko abenduaren 11ko saioan: Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua Laboral Kutxari esleitzea. Azken horrek honako baldintza hauek eskaintzen ditu, irekiera-komisioa: % 0, interes-tasa: 0,48 diferentziala + hiruhilekoko Euriborra (urteko interes-tasa aldakorra), erabili ez den saldo-komisioa: % 0,08 urteko (zergaren sortzapenaren hiruhilekoko interesak).
    - Formalizazioa: udal-notarioaren eta udal-idazkariaren aurrean.

Erabaki da:

- 1) Urteko kreditu-kontuaren banku-kontratua esleitzea gehienez 500.000 (bostehun mila) euroko zenbatekoarekin Laboral Kutxari, eta honako baldintza hauek proposatzen dituelako: irekiera-komisioa: % 0, interes-tasa: 0,48 diferentziala + hiruhilekoko Euriborra (urteko interes-tasa aldakorra), erabili ez den saldo-komisioa: % 0,08 urteko (zergaren sortzapenaren hiruhilekoko interesak). Formalizazioa: udal-notarioaren eta udal-idazkariaren aurrean.
- 2) Eduardo Terroba Cabezón alkate jauna ahalduntzea behar adina dokumentu sinatzeko.
- 3) Hitzarmen hau jakinaraztea Arabako Foru Aldundiari eta Toki Administrazioaren eta Lurralde Oreakaren Sailari.

Aldeko botoak 7(zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion).

## **6.2. Oyón-Oiongo hiri-antolamenduko plan orokorraren aldaketa puntuala. Edateko ur-biltegi berria sistema orokor gisa ezartzea.**

Aurrekariak:

1. HAPOn 10. aldaketa puntualaren aldaketa puntualaren espedientea, sistema orokor gisa ur-biltegi berria ezartzeko, Luis I. Hernández Mayoral goi-mailako arkitektoak idatzitako proiektu teknikoaren arabera eta Oyón-Oion Udalak sustatuta. Erreferentzia alfanumerikoa: PGOUMod10.
2. Espedientea hasiera batean onartu zen 2018ko abenduaren 19an egindako bilkuran eta jendaurrean jarri zen 2018ko abenduaren 21eko ALHAOn (147. zk.), 04528 iragarkiaren bitartez, 45 (berrogeita bost) egun baliouduneko epean. Gainera, iragarki bat ere jarri zen udaletxeko iragarki-taulan eta 2018ko abenduaren 21eko El Correo egunkarian.
3. Hitzarmenaren hasierako onarpena eskumen sektorialak dituzten administrazio publikoei eta Barriobusto eta Labrazako Administrazio Kontseiluei jakinarazi zaie.
4. Ez da erreklamaziorik edo errekursorik aurkeztu amaitu den jendaurrean jartzeko epean.
5. Arabako Errioxako Kuadrillen zerbitzura dagoen goi-mailako arkitektoak sinatutako txostena eta Udaleko idazkariak sinatutako txostena daude.
6. Informazio-batzordearen saio batean egindako proposamena.

Erabaki da:

1. Behin-behinean onartzea HAPOn 10. aldaketa puntualaren aldaketa puntualaren espedientea, sistema orokor gisa ur-biltegi berria ezartzeko, Luis I. Hernández Mayoral goi-mailako arkitektoak idatzitako proiektu teknikoaren arabera eta Oyón-Oion Udalak sustatuta.
2. Barriobusto eta Labrazako Administrazio Kontseiluei behin-behineko onarpen-erabakiaren berri ematea.
3. Espedientea organo eskudunari igortzea, azter dezan eta behin betiko onartzeari buruz erabaki dadin.

Aldeko botoak 9 (bederatzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez atxikia).

### **Azken puntua) Galderak eta eskeak.**

Lehenik eta behin, alkate jaunak atxiki gabeko zinegotzi Salvador Adán jaunak egindako galderak irakurri ditu. Jarraian galderen zein erantzunen testua atxiki da:

1. galdera. Enplegua sustatzeko programen barruan, Udalak 9 peoi kontratatu ditu. Zein izan da hautaketa-metodoa? Nola puntuatu dira merezimenduak? Eta non argitaratu da zerrenda aurkeztu den jendearen ordenarekin?

Kontratazioak enplegua sustatzeko programen barruan egin dira:

- Lanaldi osoko 2 kontratu, gazteentzako planean, laguntzen deialdian babesean, 2019 ekitaldirako, toki-entitateek gazteak kontratatuzko Gazte Enplegu Programa Operatiboaren esparruan.
- Lanaldi osoko 7 kontratu, ingurumeneko enplegu-planean, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu Sustapena Sailaren 2019ko diru-laguntzen deialdiaren babesean, 2019an Arabako eskualde babesgabeetan enplegua sortzeko helburuarekin.

Gazteentzako planean dauden 2 kontratuen inguruan:

Deialdiaren 4. artikulua 1. paragrafoak honako hau eskatzen du:

- Kontratu horiek tokiko mailan sustatuko dira eta udalek edo tokiko garapen-agentziek zuzenean egingo dituzte.
- Kontratuak 2019ko azaroaren 30a baino lehen hasi beharko dira.
- Nolanahi ere, lan-eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edo erakunde autonomo horretako erakunde laguntzaileek kudeatu beharko dituzte jarduera hori burutzeko.

Deialdiaren 6. artikulua honako baldintza hauek bete behar direla ezartzen du:

- a) 16 urtetik gorakoak eta 30 urtetik beherakoak izatea.
- b) Langabezian egotea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskaintzaile gisa izena emanda egotea, egin beharreko lanari dagokion hezkuntza-mailarekin.
- c) Gazteen Berme Sistemari inskribatuta egotea.
- d) Dirulaguntza-eskaeran aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko herrian bizitzea.

Deialdiaren 8. artikulua programan parte hartzen duten gazteentzako hautaketa-prozedura ezartzen du, eta zehazki 2. eta 3. ataletan honako hau dio:

2.- Eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako prozedurak jarraituz kudeatuko dira.

3.- Hautaketa-prozesuan toki-entitateak lehentasun-hurrenkera hau aplikatuko du:

- a) DSBEn titularrak edo onuradunak.
- b) 30 urte betetzetik hurbil dauden pertsonak.
- c) 6. artikuluko betebeharrak betetzen dituzten gainerako gazteak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatu behar ditu lan-eskaintzak, planak finantzatzeko laguntzen deialdietan hala eskatzen zelako:

Arabako Foru Aldundiaren laguntzen deialdiko ingurumeneko enplegu-planeko lanaldi osoko 7 kontratuei buruz.

4.1. artikuluko a eta b letrek zehazten dute dirulaguntza jaso dezaketen gastuak hauek direla:

- a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan izena emanda dauden langabeak kontratatzea ekimena edo proiektua garatzeko, bai lanaldi partzialean bai lanaldi osoan.
- b) Kontratutako langabeen eta aseguruaren Gizarte Segurantzako kotizazioei dagozkien gastuak. Eta azken paragrafoan ezartzen du enplegu-deialdiak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan eskaini behar direla, beste bide batzuetan eskaintzen diren ala ez gorabehera.

Nolanahi ere, udal honek zehaztutako enplegu-programetan kontratatzeke hautaketa-prozesuetan berdinketa ezabatzeko irizpideak onartu ditu:

Enplegu-programetan, enplegurako prestakuntzan edo gizarte-bazterketari aurrea hartzeko programetan kontratatzeke hautaketa-prozesuak beste erakunde batzuen finantzaketa partzialarekin.

Enplegu-programetan ezarritako ebaluazio-irizpideak haztatu ondoren, enplegu-bulegoak (Lanbidek) bidalitako bi hautagai edo gehiagoren artean berdinketa edo berdintasuna badago, berdinketa hausteko irizpideak erabili eta aplikatuko dira, jarraian agertzen den zerrendako hurrenkeran:

1. Garatu beharreko zereginekin lotutako esperientzia profesionala:
  - a. 55 urtetik gorako pertsonen eta gutxienez 36 hilabeteko esperientzia duten pertsonen kasuan.
  - b. 35 urtetik beherako pertsonen eta gutxienez 6 hilabeteko esperientzia duten pertsonen kasuan.

- c. Enplegu-plan orokorren kasuan: esperientzia igeltserotza, iturgintza, soldadura, arotzeria, elektrizitatea, pintura eta kofratzeko lanetan.
  - d. Ingurumen-jarduerekin lotutako enplegu-planen kasuan: nekazaritzako langile, lorezain eta berdeguneetako mantentze-lanetarako peoi gisa emandako zerbitzuak.
2. Laneko arriskuen prebentzioren arloko berariazko prestakuntza (plan edo kontratu motaren arabera):
    - a. LAP ikastaro bat, gutxienez 20 eskola-ordukoa, igeltserotza edo gainerako lanetarako, 1. ataleko c letran adierazitakoen artean.
    - b. LAP ikastaro bat, gutxienez 20 eskola-ordukoa, lorezaintza eta berdeguneen lanetarako, 1. ataleko d letran adierazitakoen artean.
    - c. LAP ikastaro bat. gutxienez 6 eskola-ordukoa, ibilgailuen eta lurrak mugitzeko makineriaren operadoreentzat.
  3. B motako gidabaimena edukitzea.
  4. Gutxienez 20 eskola-orduko prestakuntza espezifikoa, lan-ekipo automotorrak modu seguruan gidatzeko.
  5. 35 urtetik beherakoen kasuan, euskarako 1. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea.
  6. Azken 5 urteetan enplegu-programetako, enplegurako prestakuntzako edo gizarte-bazterketari aurrea hartzeko programetako kontratuen titularra ez izatea.
  7. Azken urtean programa mota horietako kontratuen titularra ez izatea. Berdinketa horrelako kontratu mota zaharragoa duen pertsonaren alde erabakiko da eta berdinketak bere horretan eutsiz gero, kontratu laburragoa duenaren alde.
  8. Emakumeen lehentasuna, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 27.2. artikuluan eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.4.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Berdinketa-kasuak hausteko merezimenduak eta baldintzak egiaztatzea Lanbidek administrazio honi emandako curriculum vitaetik soilik ondorioztatuko da.

2. galdera. Norbait bizi den eta hiri-lurretan ez dauden eraikin guztiek ordaintzen dute ondasun higiezinaren gaineko zerga?

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren Foru Arauak honako hau ezartzen du:

3. artikulua.-

2. Hiri-ondasun higiezinak honakook hartuko dira:

a)

a')

b) Hiri-eraikuntzak, hurrengo hauek hartuko direlarik horrelakotzat:

a') Eraikinak; direnak direla horiek eraikitzeke erabili diren elementuak; eraikinok dauden tokiak; eraiki diren lurzoru mota eta haien erabilera, are eraiki diren moduagatik garraiagarriak direnean eta eraikita dauden lurra eraikuntzaren jabearena ez denean ere; eta eraikintzat jo daitezkeen merkataritza eta industriak instalazioak: eustarriak, tankeak eta zamaguneak.

10. artikulua.-

Landa eta Hiri Higiezinaren Katastroak landa-eta hiri-ondasun higiezinaren deskribapen eta datuek osatzen dituzte. Horietan azalera, egoera, mugakideak, laborantzak edo aprobetxamenduak, kalitatea, balioak eta gainerako egoera fisiko, ekonomiko edo juridikoak agertuko dira, lur-jabetza ezagutzera ematen badute eta horren hainbat aspektu eta aplikazio definitzen badituzte.

19. artikulua.-

3. Arabako Foru Aldundiari dagokio eskusiboki lurraren mugaketei eta balio-txostenei buruzko zehaztapenak egin eta onartzea, baita aipatutako mugaketa eta katastroko balioak finkatzea,

*Udalaren osoko bilkura; 2019- XII - 11ko bilkura;*

berrikustea eta aldatzea eta Katastroei eta Zergen Erregistroari atxikitako eratze, berrikuste eta kontserbatzeko funtzioak eta bestelako funtzioak ere.

Udalak Foru Aldundiarekin lankidetzan arituko dira Katastroa eratzeko eta kontserbatzeko.

Aipatutako arrazoiengatik, honako galdera hau egin zaio Arabako Foru Aldundiko Tokiko Zerga Zerbitzuaren eta Katastroaren buruari:

Daniel Salvador Adán zinegotzi ez atxikiak 2019ko abenduaren 4an galdera batzuk egin zituen osoko bilkuran erantzun zitezten. Zure eskumenen eremua denez, galdera helarazten dizut horri erantzuteko informazioa emango diguzulakoan. Udal honek ohiko saio bat egingo du datorren 2019ko abenduaren 11n.

Egindako galderari erantzunez, jakinarazi da eraikinek, bizitokiek (jendea bizi den edo ez) eta beste mota batekoek (nekezarritza pabiloiak, etxetxoak eta abar), hau da, "barreiatuak" deiturikoek, balio-txostenaren arabera katastro-balio bat dutela.

Udalerriko gainerako ondasun higiezin baldintza berberetan zergapetzen dira, uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan eta udal-ordenantzetan jasotako ondasun higiezin gaineko zergaren salbuespenak edo hobariak gorabehera.

3. galdera. Zein dira Oyón-Oiongo jaietan egindako gastuak 2019ko abuztuko jaien programan sartu diren jardueren arabera xehakaturata?

Arestian adierazi dizudan moduan, udal honetako gastu eta diru-sarrera guztiei buruzko informazioa eskura dezakezu. Izan ere, zenbaketa-aktak ematen zaizkizue diru-sarreraren erregistro orokorraren eta ordainketen erregistro orokorraren kopiaekin.

Jakinarazten dizut 2019ko azaroaren 28an faktura bat ordaindu zela; fakturaren kontzeptua 2019ko Esker onezko jaiak direla-eta eskainitako zerbitzuak ziren. Faktura hornitzaileak aurkeztu duenetik epearen barruan ordaintzen da. Beraz, faktura guztiak aurkeztu arte, ezin da jaietan izandako gastu zehatzari buruz hitz egin. Orain arte 48 ohar daude ordainketen erregistroan, eta, besteak beste, DJ baten emanaldia eta piroteknia azarokoak dira.

Hori horrela, 2019ko azaroko zenbaketa-akta prestatu eta hileko diru-sarreraren erregistro orokorrarekin eta ordainketen erregistro orokorrarekin batera entregatu ondoren, eskatutako informazioa eskuratu ahal izango duzu.

**"4. galdera. Badago WhatsApp zerbitzu bat non datu pertsonalak ematen diren. Betetzen al du zerbitzu horrek Datuak Babesteko Legea?"**

Bai, badago WhatsApp zerbitzu bat non datu pertsonalak ematen diren.

WhatsAppeko hedapen-zerrendaren zerbitzuko harpidetza borondatezkoa da. Harpidetzeko adostasuna egon behar da dena baliozkoa izateko. NAN-zenbakia ematearen xedea da harpidetza-eskaera baimentzea. Eta hori agertzen den leku bakarra da harpidetzak egiteko bidaltzen den mezua; mezu hori ez da ezabatzen, adostasunaren froga izateko.

**III. Araudi aplikagarria:**

Sare Sozialak bereziki "legea" duten eremua dira eta, hain zuzen ere, lege asko daude:

— 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB).

— 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa (aurrerantzean, DPBL) - Datuak Babesteko Europako Erregelamenduan kontraesanik ez duen guztian.

Datuak babesteko araudiari dagokionez, betebeharrak nagusiak honako hauek dira (baina ez dira bakarrak):

— Informazio-betebeharrak betetzea.

— Herritarrekin komunikatzeko sare sozialak erabiltzeko baimena eskatzea.

Datu pertsonalak tratatzeko informazioa eta baimena eskatzeaz gain, gomendatzen dugu entitateak neurri hauek hartzea, nolahi ere, datuen babesari buruzko indarreko araudia betetzera bultzatzeko:

— Parametro murriztaileak ezartzea, hau da, intimitatearekin eta pribatutasunarekin ahalik eta errespetu handienekoak.

— "Informazio-ohar" bat sortzea entitateak sare sozialean dituen helburuei buruzko alderdi guztiekin: betekizunak, mugak, erantzukizunak, jarrerak eta abar.

— Erabiltzaileak informatzea eta ohartaraztea Sare Sozialaren zerbitzuak ematen dituenari datuak ematearen inguruko arriskuei buruz, ez badira behar bezala irakurri ezaugarriak eta egon daitezkeen ondorioak.

— Erabiltzaileei gomendatzea beste erabiltzaileekin erlazionatutako irudiak edo edukiak ez igotzea (sare soziala duten erabiltzaileak izan ala ez), horiek baimena eman eta alde aurretik horiei jakinarazi ez bazaie.

Udal honek ulertzen du bere egintza guztiak baliozkoak direla urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen) 39.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, «Administrazio Zuzenbideari dagozkion administrazio publikoen egintzak presuntzioz baliozkotzat hartuko dira eta ondorioak izango dituzte ematen diren egunetik, haietan besterik xedatzen ez bada».

Villanueva Gutierrez jauna (EH Bildu Oion): Bi gertakari triste eta tamalgarri aipatu nahi ditut: batetik, sexu-erasoa eta, bestetik, gure Ignacio bizilagunaren heriotza.

Duque Sáenz jaunak (EH Bildu Oion) SD Oyonesaren gaiari buruz galdetu du.

Alkate jauna: SDOren 2019ko azaroaren 22ko (sarrera-erregistroko zk.: 1444) 8. dokumentuari emandako erantzunaren berri eman du.

Alkate jauna: ekintza bandalikoak Arroyo Grande parkean. Testigantza emango duela adierazi duen herritar baten laguntza eskertzea. Aseguruarekin harremanetan jarri gara eta beharrezko kudeaketa guztiak egingo ditugu arduradunak ordaindu beharrekoa ordain dezan.

Fernández Ruiz jaunak abandonatutako ibilgailuak erretiratzearen inguruan galdetu du; izan ere, batzuk erreta daude.

Jorrazteko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak bilkura amaitu du 22:05ean (bilkura 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oion, 2019ko abenduaren 27a.

Udaleko idazkaria:

O E. Alkatea.